

# €konomiarenKZ

Euskal Ekonomiaren Kazeta

15. alea • 2009ko Urria • Doaneko Alea • Hirugarren Urtea • Harpidetzak: 944213031 • Lege Gordailua: BI - 0371 - 08

Orain ere Interneten: [www.ekonomiarenkz.eu](http://www.ekonomiarenkz.eu) // [ekonomiarenkz.wordpress.com](http://ekonomiarenkz.wordpress.com)

ELKARRIZKETAK



Unai Sordo  
CCOOko idazkari nagusia

“Zalantzarik gabe,  
ziurgabetasunezko  
egoera bizi dugu”

8. orrialdea



Jon Lasa  
Semateceko gerentea

“Zerbitzuen sektorean  
krisiaren ondorioak  
nabaritzen hasi gara”

12. orrialdea

## Lan-kapitalaren garrantzia mundu osoan



Ekonomiaren hazkundera sustatzeko, lan-kapitala ezinbestekoa den ezaugarria da. Trebetasuna, esperientzia eta prestakuntza hazten diren heinean, normalean lan-kapitala ere handitzen da. Gaur egungo behar bezalako kudeaketaren giltza bertan lan egiten duen jendearen parte-hartzean datza. Lan-kapitalaren inguruko datu gehiago eskuratzeko, Monica Moso Innobasqueko Gizarte Berrikuntza Saila - Programa zuzendariaren iritzia islatu dugu.

10-11. orrialdea



## Ekonomiako arlo guztietako egoera Euskadin

Carlos Aguirrek, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburuak, BPGk %2,9ko beherakada izango duela aurreikusitako Erci-lla Hotelean emandako hitzaldian.

Hala eta guztiz ere, datorren urteko emaitzak pixkanaka hobetuz joango direla adierazi zuen sailburuak.

13. orrialdea

## Aldi baterako kontratuentzako diru-laguntzak luzatuko dira

Eusko Jaurlaritzak 63 milioi euro gastatuko ditu aldi baterako 7.000 kontratu egiteko. Horren guztiaren harira, Gemma Zabaleta Lan

sailburuak laguntza horiek neurri iragankorra eta salbuespenekoa direla adierazi du.

4. orrialdea



# URBIL MODAN DAGO

URBIL ESTÁ DE MODA

zuregandik oso hurbil muy cerca de ti



## ANTOLATZAILEAK:



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizuntza Politikako Sailburuordetza  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Vocosejería de Política Lingüística

KULTURA SAILAK  
(KULTURA SAILA HIZKUNTZA  
POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)  
DIRUZ LAGUNDUTAKO



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Ekintza honek Bizkaiko Foru  
Aldundiairekin Kulturako Saitarekin  
laguntza jasotzen du.

## ELKARLANEAN:



## ADITUAREN IRITZIA



**Jose Miguel Artaza**  
Sprilurreko zuzendari  
gerentea

**Merkataritza-guneen  
garrantzi ekonomikoa**

Ezin dugu ahaztu merkataritza-guneak jarduera ekonomikoaren guneak direla, eta, era berean, lanpostuak eta hazkunde ekonomikoa sortzen dituztela. Beraz, legeak markatzen dituen arauen barnean, Sprilurretik beti bultzatuko ditugu inbertsioa eta enpleguari laguntzen dioten ekimen guztiak. Beterie, zonaldeko agente politiko eta ekonomikoek gomendatzen edo proposatzen badute.

Gure jardueraren helitze epea oso luzea da; honela, garatzen ari garen industrialdeak bizpahiru urtetan egongo dira bukatuta, eta, ziu-rrerik, epe horretan jada haz-

kunde egoeran egongo gara. Era berean, beharrezkoa da azpimarratzea krisi garaian enpresa eta negozio batzuk hazi egiten direla eta kokatzeko gune berriak eta desberdinak behar dituztela.

Momentu honetan, mota honetako inbertsio bati aurre egitea oinarritzat eta erantzukizun handiko erabakia dela uste dugu. Horrez gain, azpiegitura industrialei dagokienez, Lea-Artibai zonalde defizitarioa da. Bertan, gure merkaturatze eredu berriak praktikan jartzea espero dugu, beste faktore batzuen artean.

## GORA

## Pescanova taldeak 6,44 milioi akzio berri jaulki ditu

Pescanova momentu positiboa ari da bizitzen burtsan, datozten egunetan bere kapital soziala handituko du eta. Hau da, taldeak 6,44 milioi akzio berri lortu ditu, bakoitza 15,60 euroren truke; beraz, zenbatekoa 100,57 milioi eurokoa da guztira, hau da, Pescanovak gauzatu duen egintzarik nagusia. Gainera, kontuan izan behar dugu Pescanova taldeak Vigon duela egoitza orain dela 33 urtetik, eta inoiz ez duela honelako gorakadarik bizi izan, Balioen Merkatu Nazionalaren Batzordearen (CNMV, gaztelaniaz) arabera.

Zehazki, Administrazio Aholkularitzak adostutako kapital soziala handitzea erabaki du, bere zenbateko nominala 38,68 milioi eurora pasatuz. Aldaketa hori hasieran komentatutako 6,44 milioi akzio berriei esker izan da.

Horren guztiaren helburua kapitala sendotzea da; izan ere, horrela, krisialdiaren ondorioak jasateko prestatuta egongo dira, edo hori jakinarazi dute, behintzat, enpresatik gertu dauden iturriek.



## BEHERA


## Ez dago dirurik esne-ekoizleentzat

Aurreko asteetan, Nekazaritza ministroak Bruselan bildu dira esnearen prezioen jaitsierari buruz eztabaidatzeko; abeltzain ugari ere han izan ziren protesta egiten eta euren lana aldarrikatzen. Horren ondorioz, adituen batzordea sortzea erabaki dute.

Batzar edo eztabaida horietan, ministroek esne-ekoizleentzat dirurik ez dagoela erabaki zuten. Dena dela, adituen batzordea ekoizleei laguntzeko sortu zen, eta urriaren 13an jarri zuten abian.

Hala eta guztiz ere, Bruselara joan zirenak ez ziren soilik ministroak izan; izan ere, bertan ziren, baita ere, egoitzaren aurrean traktoreekin protesta egin zuten ehunka abeltzain. Modu horretan, esnearen krisiari irtenbidea bilatzea eskatu zuten.

Nekazaritza ministroen batzarraren ostean, irtenbiderik aurkitu ezean, protestekin jarraitzeko deia egin zuten esne-ekoizleek.



## KOMIKI



## STAFF

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94 421 30 31

WEBGUNA: [www.ekonomiarenkz.eu](http://www.ekonomiarenkz.eu)

E-MAILA: [info@ekonomiarenkz.eu](mailto:info@ekonomiarenkz.eu)

POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kutxatila, 48080 Bilbo

EUSKARAREN ARDURADUNA: Labayru Ikastegia

EGILEA: Leizaola Elkartea

HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonoz.

## Egin zaitez harpide!

Ekonomiaren KZ etxean hilerdo doan jaso nahi baduzu, bidal ezazu ondorengo kupaia honako helbidera:

· 612 Posta Kutxatila, 48080 Bilbo,

edo idatz ezazu [info@ekonomiarenkz.eu](mailto:info@ekonomiarenkz.eu) posta helbidera, zure izen-deiturak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa adieraziz.

ABIZENAK: \_\_\_\_\_ IZENA: \_\_\_\_\_

HELBIDEA: \_\_\_\_\_

TELEFONOA: \_\_\_\_\_ E-MAIL: \_\_\_\_\_

HERRIA: \_\_\_\_\_ P.K.: \_\_\_\_\_

## ALBISTEAK

## Euskadiko ekonomiak ahul jarraitzen du

Eusko Ganberak argitaratutako txosten berrian Euskadiko egoera ekonomikoa ematen da ezagutzera, eta ikerketan argi uzten duten bezala, "egoera makala bizi dugu". Aurkeztutako lehenengo datua BPGrena da, Ganberen aurreikuspena aurten %3ko jaitsiera izatea da; aitzitik, datorren urterako egoera hobetu egingo da, baina emaitzek negatiboak izaten jarraituko dute. 2010. urtearen kasuan, %0,8ko beherakada izango da.

Entitate hauek egindako ikerketaren arabera, Euskadik bi hiruhileko daramatza jarraian BPGren emaitza negatiboekin. Bigarren hiruhilekoari dagokionez, beherakada %3,6koa izan zen, aurreko urteko denboraldi berarekin alderatuz. Lehenengo hiruhilekoaren aldean, berriz, jaitsiera %1ekoa izan zen.

BPGren porrotaren arrazoiak, Eusko Ganberen arabera, industriaren atzerakada da, 2009ko bigarren hiruhilekoan %10 puntu jaitsi baitzen. Dena den, industria ez da arrazoi bakarra; izan ere, eskabidezorrotaren murrizketa moteldu eginda da eta bilgutako produktuen bolu-mena ez da handitu, beste ezaugarri batzuen artean.

Eraikuntza eta etxebizitzaren egoera latza

Txostenak dioten bezala, "eraikuntza oraindik ez da sendotu eta oraindik denbora falta zaio guztiz doitzeko". Aurtengo bigarren hiruhilekoan sektore honen jarduera %0,6 jaitsi egin zen, aurrekoan baino zortzi hamarren gutxiago.



Eraikuntza eta industria sektoreak ahul jarraitzen dute

Oro har, urte batetik besterako aldaketa %5,2ko atzerapena izan da. Industriarekin gertatzen den legez, eraikuntzak hamar hiruhileko daramatza emaitza negatiboak izaten.

Etxebizitzaren salmenten kasuan, berriz, datuak ere negatiboak izaten ari dira.

2009ko lehenengo hiruhilekoan, esaterako, %23,4ko beherakada izan zuen sektoreak.

Bilakaera negatiboa izan duten beste sektore edo eremu batzuk zerbitzuak eta garraioa izan dira. Hala ere, turismoaren kasuan, emaitzak aurrekusi-

takoak baino positiboak izan dira, batez ere udako hilabeteetan.

Kontsumitzaileen konfiantza

Kontsumo pribatuari dagokionez, bigarren hiruhilekoan %4,6ko jaitsiera izan zuen aurreko urteko epe berarekin alderatuz. Dena dela, Ganberen arabera, "badirudi, kontsumitzaileen aldetik baikotasuna berpizten ari dela eta kotxeen salmentak azken hilabeteetan nabari igo direla"; azken horiek, Plan Renove delakoaren laguntzei esker batez ere.

Inbertsioen kasuan, berriz, ahul jarraitzen dute; aurtengo lehenengo hiruhilekoan %6,8ko beherakada izan zuten, eta bigarrenean, berriz, %9,1eko jaitsiera, 2008ko epe berberen aldean.

Soldatak izoztu

Ekonomiaren inguruan hitzegiterakoan hiritar askok gehienbat langabeziaren inguruan kezkatzen dira. Ildo berari jarraituz, Carlos Aguirre Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak argitu du Jaurlaritzaren helbu-

rua funtzionarioen soldatak izoztera ahalik eta gehien gerturaztea izango dela. Adierazpen hauek funtzionarioen artean ez dute harrera onik izan, baina 'izozketa' honen arrazoi nagusia zerga bilketan izandako beherakada "ikaragarria" izan dela aitortzen du sailburuak.

**Aurten,  
BPG %3  
jaitsiko da**

Oro har, Eusko Jaurlaritzako bozeramaile guztiek iragartzen dute hurrengo aurrekontuetan murrizketa nabarmenak egongo direla, ez bakarrik lan eremuan. "Beherakada aurreko urtekoa baino nabaria goa izango da", azpimarratzen du Aguirrek. Modu honetan, zerga-bilketan izandako jaitsieraren ondorioz, zorpetzeko beharra izango dela aurreikusten dute Gobernuak.

Era berean, Ekonomia sailburuak dio aurrekontua Barne Produktu Gordinaren %2,5 inguruko defizitarekin jaiko dela.

## V JORNADAS SOBRE TURISMO EN ARABA V. JARDUNALDIK

25 y 26 de Noviembre 2009 ♦ 2009ko Azaroaren 25 eta 26an

Día 25 de Noviembre:

Palacio Europa, sala Sorginetxe. Av. Gasteiz s/n. Vitoria

Día 26 de Noviembre:

Museo vasco de gastronomía de Laudio-Llodio

Ordutegia/horario: De 16:30etatik a 20:30etara

Izenematea eta informazio gehiago ♦ Información e inscripciones

leizaola@leizaola.org ♦ Teléfono 94.421.30.31 ♦ www.leizaola.org

JORNADAS GRATUITAS ♦ DOANEKO JARDUNALDIK

Zentru bakoitzaren konbaltzarzio komisioaren baitan UPV/EHUko ikasleek kreditu bat (1) eskura dezakete. Los/as estudiantes de la UPV/EHU pueden obtener un (1) crédito convalidable.

### PROGRAMA

Día 25: Conferencia:

· Los centros de interpretación de última generación y la excelencia enológico-gastronómica.

· Actividades singulares y oferta combinada para la puesta en valor del producto enológico.

Día 26: Visita:

· Visita al museo vasco de gastronomía de Laudio-Llodio.

· Exposición de Fernando Canales sobre vino Rioja Alavesa en la cocina actual.

**Autobús gratuito ida/vuelta desde Bilbao**



## ALBISTEAK

# Sindikatuak Tubos Reunidos enpresako bigarren erregulazioaren aurka azaldu dira

Tubos Reunidos taldeak bigarren erregulazio eskaera aurkeztu nahi du hainbat lan-murrizketa gauzatzeko. Sindikatuak, berria ezagutu bezain laster, erabat haserretu dira, eta erregulazioaren kontra azaldu dira. Amurrioko enpresak, 2009ko lehen sei hilabeteetan, 8,3 milioi euroko irabazi garbiak izan zituen. Bereziki, ELA eta LAB sindikatuek gogor kritikatu dute eskaera berri hau.

Taldeak inposatu nahi duen bigarren erregulazioa 767 langilerentzat ezarri nahi du. Eskaera onartua izatekotan, hamahiru hilabeteko iraupena izango luke (aurtengo abenduaren 1etik 2010. urteko abenduaren 31ra arte), eta gehienez beharginen lanaldiaren %75 kenduko litzateke, beste ezagurri batzuen artean.



Tubos Reunidos taldeko Amurrioko lantegia

## Lehenengo aldia

Enpresak aurtengo martxoan egin zuen lehenengo

dosierraren eskaera, baina Langile Batzordeko sindikatuek (ELA, CCOO, LAB, UGT eta independenteak)

ez zuten onartu.

Ildo berari jarraituz, krisia luzatzen ari den heinean, erregulazio-eskaerak

berritu nahi dituzten enpresen zerrenda handituz doa, eta hori kezagarria da langile eta sindikatuentzat; azken horiek inoiz baino adiago egon behar dira enpresen egoera eta emaitzak gertutik aztertzeko.

**Erregulazioa  
767  
langilerentzat  
ezarri  
nahi da**

Tubos Reunidos enpresak oraingoan eskatutako erregulazioari dagokionez, langileen ordezkariekin akordiorik ez badago, Eusko Jaurlaritzak erabaki behar du onartzea edo ukatzea.

# Jaurlaritzak aldi baterako langileak kontratatuzko diru-laguntzak baimendu ditu

Krisiari aurre egiteko sortu edo pentsatu diren ekimenak anitzak izan dira; + Euskadi 09 izenpean aurkeztu ziren proiektuen artean, Patxi López Eusko Jaurlaritzako lehendakariak proposatutakoa izarra izan zen. Lópezek proposatutako ekimena orain dela hilabete inguru ezagutzera eman zen: aldi baterako 7.000

**63 milioi  
euro  
inbertituko  
dira 7.000  
kontratu  
egiteko**

langile kontratatuzko diru-laguntzak eskaintzea enpresa pribatuei; dena dela, neurria gizarte elkarriket-

tako mahaian osorik hitzartu gabe dago oraindik.

Azkenean, akordioa sinatu eta programaren xehetasunak eman zituzten Jaurlaritzak, Confebask patronal eta CCOO eta UGT sindikatuek.

## Kontratuen nondik norakoak

Eusko Jaurlaritzak 63 milioi euro gastatuko ditu aldi baterako 7.000 kontratu egiteko. Horren guztiaren harira, Gemma Zabaleta Lan sailburuak laguntza horiek neurri iragankorra eta salbuespenekoa direla adierazi zuen.

Langabezia dauden artean, ordainsaririk jasotzen ez duten langileentzat nahiz oinarritzko errenta jasotzen ari diren pertsonentzat zuzenduta dago ekimena.

Kontratuari dagokionez, gehienez, sei hilabetezko izango da, eta egingandako kontratu bakoitzeko laguntza 1.500 eurokoa izango da, irauten duen hilabete bakoitzeko. Sektoreko itun kolektiboak agintzen duen soldata kontratuko dute, gutxienez.

Nahiz eta aldi baterako lanpostuak izan, kalitatezko enplegua ziurtatzen dute, eta guztiz duina izango dela aldarrikatzen dute ekimenaren arduradunek; "ez ditugu ordain hutsak eman nahi", aitortu du Zabaletak.

## Langabeziari aurre egiteko ekimena

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 120.000 langabe inguru daude guztira, eta



Gemma Zabaleta Lan sailburuak diru-laguntzen xehetasunak eman zituen

Eusko Jaurlaritzak azken lau urteetan kontratazioa sustatzeko eman zituen laguntzek 4.000 enplegu sortzeko balio izan zuten. Aldiz, kasu honetan, badi-rudi 7.000 pertsonari egingo diela mesede ekimen berri honek. Hala ere, kon-tuan izan behar dugu Lópezen Gobernuak eskain-

tzen dituen lanpostuak aldi baterakoak direla.

CCOOk idazkari orokor-rrak aitortu du ez duela bazterkerian erori nahi, "diru publikoarekin kontratazio mugagabea sustatzeko eskaera egiten duenak ez ditu benetako pertsonen arazo errealak ezagutzen", gaineratu zuen Sordok.

## ALBISTEAK

# Hezkuntza sailak berrikuntza sustatuko du hurrengo urteetan

Isabel Celaák, Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza sailburuak, unibertsitateak hartuko duen ildo berriaren inguruko datuak eta informazioa eman zituen. Lehenengo eta behin, bere hitzaldia krisialdian zentratu zen, eta argi utzi zuen egungo egoera ekonomikoak hezkuntzan ere eragina daukala eta errekurtsioak gero eta eskasagoak direla. Hori dela eta, Celaáren helburua ikerkuntzan inbertitzea da; "bestela, oraindik txiroago aterako gara krisi honetatik, eta eraikuntzaren edo turismoaren sektoreek gure ekonomia pisu osoa izaten jarraituko dute", azaldu zuen Hezkuntza sailburuak.

Egoera eta garaia aldatu egin dira; hori dela eta, irtenbideak ere aldatu behar dira, "atzo krisiari aurre egiteko baliagarria zena, gaur egun agian ez da hain baliagarria izango eta irtenbide berriak aurkitu beharko ditugu", gaineratu zuen Celaák. Azken finean, sailburuak hezkuntza eredu berri bat ezarri nahi du, gizartearekin batera hezkuntza ere aldatu behar delako.

## Ikerkuntza eta berrikuntza

Bere hitzaldian zehar gehien errepikatu ziren hitzak "ikerkuntza" eta "berrikun-



Sailburuaren helburua ikerkuntza sustatzea da

tzia" izan ziren; ildo berari jarraituz, Celaák lortu nahi duena da bi elementu horiek irakaskuntzan batzea, horrela Euskal Unibertsitateak bultzatzeko eta mundu osora irekitzeko.

Ikerkuntza eta berrikuntza hezkuntzaren giltzak dira

kuntza europarra eraikitzeke eta hobetzeko ezinbesteko tresna da. Zure lurraldean lortutako titulu bat atzerrian baliokidea izatea gozamina da", ziurtatu du Isabel Celaák.

Zientzia, teknologia eta berrikuntza etorkizuneko hezkuntzaren giltzak dira sailburuarentzat, "errezeta berriak behar ditugu eta argi izan behar dugu etorkizuneko arrakasta ez dela soilik oinarritu behar gainontzekoek asmatzen dutenaren inguruan, baizik eta gu ere proiektu edo ideiak sortzeko gai izan behar gara", gaineratu du Eusko Jaur-laritzako sailburuak.

Celaáren xedea, beste kontu batzuen artean, gazteen talentua aprobetxatzea da, eta, horretarako, unibertsitatearekin eta ikerkuntzarekin harremana duten politiken alde egin

Krisialditik ateratzeko irtenbide berriak aurkitu behar ditugu

behar dela aldarrikatu du, "eremu horiek arreta berezia behar dute eta".

Modernotasuna euskal sistema hezitzailean gerturatzeko proposatu du Hezkuntza sailburuak; horretarako, Hezkuntza 21. proiektua gauzatzea planteatzen du, horri esker XXI. mendeko hezkuntza-ezaugarriak batu nahi baititu. Ezaugarrien artean, trilinguismoa, nazioartekotasuna eta mundu globala dira ideia nagusiak.

"2050eko zientzialariak eskolan daude gaur egun; hori dela eta, ikerkuntza zientifikoarekin zerikusia duten laguntzak sustatzea gustatuko litzaidake, Euskadin ezagutza hedatzeko eta merzei duen garrantzia emateko", esan du Celaák.

## Eskola 2.0 ekimera

Bestalde, beste proiektu baten inguruan ere mintzatu zen Eusko Jaur-laritzako sailburua, kasu honetan, Eskola 2.0 deituriko ekimenaren inguruan. Celaáren esanetan, "esfortzu ekonomiko handia egin beharko dugu proiektu hau aurrera eramateko, agian eremu honetan egin den inbertsiorik arrakastuena, baina beharrezkoa da gure hezkuntza-sistema gaurkotzeko edo modernizatzeke". Programa pertsonalizatuagoa izango da.

Celaák esaldi sententzioso batekin bukatu zuen bere hitzaldia: "merzei dugun zoria ukanen dugu".

**IV CONCURSO DE FOTOGRAFÍA BERDINTASUNA ARGAZKI LEHIAKETA**  
**"Padres en el ejercicio de su paternidad"** "Gizonerkoek aitatasuna bizitzen"

Para concursar envíanos tus fotos a la dirección [leizaola@leizaola.org](mailto:leizaola@leizaola.org). Recuerda que deben de ser preferentemente en formato jpg y que deben tener calidad suficiente para imprimirlas en DIN A4.

También puedes enviarnos las fotos por correo ordinario al **Apdo. de Correos 612 - CP 48080 - Bilbao**, debidamente embaladas y haciendo constar claramente tu nombre, apellidos, dirección y un teléfono de contacto.

Parte hartzeko zure argazkiak helbide honetara bidali behar dituzu: [leizaola@leizaola.org](mailto:leizaola@leizaola.org). Gogora ezazu materiala jpg formatuan helarazi behar dela eta DIN A4an inprimatu ahal izateko kalitate nahikoarekin.

Baita ere, behar bezala ohiko postaren bide bidali ahal dira, hurrengo helbidera: 612 Posta Kutsatila, 48080 Bilbao. Argi agertu behar dira lehian sartzen den pertsonaren izena, abizenak, helbidea eta harremanetarako telefonoa.

• Primer Premio: 600 €+ Placa  
 • Segundo Premio: 300 €+ Placa  
 • Tercer Premio: 180 €+ Placa

• LEHEN SARIA: 600 €+ Placa  
 • BIGARREN SARIA: 300 €+ Placa  
 • HIRUGARREN SARIA: 180 €+ Placa

**ANTES DEL 4 DE NOVIEMBRE** **AZAROAREN 4A AURRETIK**

## I+G+i ALBISTEAK

*Basque*  
Culinary Center  
Pasioa, Erroak eta Abangoardia



## Basque Culinary Center Miramonen eraikiko dute

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuak eta Basque Culinary Center Fundazioak lankidetzahitzarmena sinatu dute. Proiektuaren izena 'Basque Culinary Center' (BCC) izango da, eta aurten eraikiko dute Miramonen. Ekimenak nazioarteko erreferente bihurtuko du EAE goi mailako sukaldaritzaren eta zientzia gastronomikoen munduan. Euskal sukaldaritzari nazioarteko goi mailako sukaldaritzaz bezala eta etorkizunerako berrikuntza-

gune gisa jarraipena ematea du helburu. Proiektu handia da, eta aurreikuspenen arabera, 2011n jarriko da martxan, 14 milioi euro inguruko aurrekontuarekin; hainbat instituzioren laguntza eta finantziatzea izango du. Eraikina ez da arrunta izango; berezitasunen artean estalkiaren itxura dago, ortu baten antza izango baitu.

**Berrikuntzaren garrantzia**


Berrikuntzaren eta zientzien ikerketaren inguruko

arloak ere landuko dira; horien artean: elikadura osasuntsurako heziketa eta ohiturak, biodibertsitatearen garapenarekin lotutako elikadura mailako gizarte-ardura eta nekazaritza ekologikoa.

Zehazki, goi sukaldaritzaren sektoreko enpresen kudeaketaren berrikuntzak eta bikaintasunak ere euren ikerketa-lerroa izango dute I+G+b zentroan.

BCCren helburuetako bat janariarekin eta jate-txeekin lotutako enpresa-sektorean berrikuntza bultzatzea da.

## Renault eta EADSrekin batera, Tekniker-IK4 Europako proiektu baten buru da



Tekniker-IK4 Foremost europar proiektua gauzatzen ari da. Momentu honetan Europa osoan garatzen ari diren ekimenen artean hau izan da material aurreratu berrien garapena marruskadura baxuko propietate mekaniko eta erresistentekin batu ahal izan dituen proiektu bakarra, hau da, industriaren merkaturaren eskaera handiena duen egitasmoa.

Proiektuak 19 milioi euroko aurrekontua du, eta

13 herrialde desberdinetako 31 erakundek parte hartuko dute; horien artean, Rolls-Royce, EADS edota Renault bezalako enpresak daude. Berritasun eta aurrerapen garrantzitsuak gauzatzea aurreikusitako dute, batez ere, aeronautika, automozio edo makina-erreminta bezalako sektoreetan.

**Proiektuak  
19 milioi  
euroko  
aurrekontua  
du**

Foremosten helburua estaldura berrien garapena gauzatzea da. Horiek fulle-

reno ezorganikoen nanopartikulen eransketan izango dute oinarria; era berean, pintura, koipea eta olioak erabiliko dituzte marruskadura murrizteko eta, aldi berean, osagai mekanikoen erresistentzia hobetzeko.

Egitasmoaren eragin positiboa, beste batzuen artean, ingurumenaren kaltea murriztea izan daiteke. Horregatik, Foremost europar proiektu nagusien artean dago, eta Tekniker-IK4 bost proiektu inportanteen artean dago.

Teknikerrek koordinatzaile gisa egin duen lana oso balioagarria izan da, baina gainontzeko enpresa handien presentzia (EADS, Renault, Rolls-Royce edo Goodrich) ere garrantzitsua izan da, materialak frogatzeko orduan, esaterako.

## "Nolakoa da gizarte berritzailea?"



Liburuaren aurkezpenaz azaldu ziren autore eta babesleak

"Nolakoa da gizarte berritzailea?", hori da Ander Gurrutxaga eta Daniel Innerarityren liburu berria; aurkezpenean esan duten bezala, "libururik berritzaileena da, bi idazleren artean idatzi baita", argitu zuen Pedro Luis Uriarte Innobasqueko presidentea. Uriarterekin batera, Andoni Zubizarreta futbolari ohia eta Pablo Angulo Eusko Jaur-laritzako Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko sailburuordea izan dira ekitaldiko anfitrioiak.

**"Berrikuntzaren kontzeptua oso mugatuta dago"**

Dena den, liburuari hitzaurrea egin dioten arduradunak Luis Mari Ulibarri, Innobasqueko Gizarte Berrikuntzako zuzendari nagusia, eta Xabier Retegi izan dira. Ulibarriren arabera, "eraikitzen lagundu nahi dugun gizarte berritzailearen ereduak, herri-tarrok Berrikuntzari atxikitako balioak bizitzeko eta geure portaera eta jarretan balio horiekin koherenteak izateko ingurunea lortzeko helburua du".

"Azterlan honek lagun-garri izan behar du gizarte berritzaile eta iraunkorra

sustatzeko kontuan izan behar ditugun arazoetan argi egiteko", esan zuen Uriartek. Bestalde, Innobasqueko presidentea azpimarratu zuen berrikuntza ez dela helburu bat berez, "baizik eta interes partekatuei erantzuten laguntzen digun estrategia".

**Liburuaren egileak**

Aurkezpenean, autoreek liburuaren eta berrikuntza orokorraren inguruan egin zuten. Gurrutxagaren aburuz, berrikuntza egungo arlo guztietan aurki dezakegu, baina, aldi berean, argi utzi zuen oso "arriskutsua" dela enpresa batean berrikuntza txertatzea. Dena den, esaldi azpimarragarri batekin bukatu zuen bere mintzaldia: "historiak aurrera egiten du eta berrikuntzari esker eraiki daiteke".

Daniel Innerarity da argitalpenaren beste autore, eta, bere ustez, "berrikuntzaren" kontzeptua oso mugatuta dago teknologian eta ekonomia arloetan; "beste sektore eta eremu batzuetara zabal daiteke kontzeptu bera, baina egungo gizartearen oker dago", gaineratu zuen Innerarityk. Arlo sozialean ere berrikuntza egon badago, eta teknologian erabiltzen den berrikuntzak gizartean edo eremu sozialean ere izaten du eragina.

## I+G+i ALBISTEAK

# Deustuko Unibertsitatearen bikaintasuna saritua izan daiteke



Universidad de Deusto  
Deustuko Unibertsitatea

# Deusto

Gaur egungo jakintzaren gizartean unibertsitateek funtsezko zeregina dute ekoizpen sarea hobetzeko langintzan. Ildo berari jarraituz, Deustuko Unibertsitatea (DU) "nazioarteko bikaintasuneko campus" kalifikazioa lor dezaketen Espainiako 15 unibertsitateen artean dago. Hori dela eta, mundu-mailako elite unibertsitarioaren barruan egotea aitortpen handia litzateke Deustuko Unibertsitatearentzat. Dena dela, azken erabakia azaroan hartuko da.

Oraingoz, DUK deialdiaren lehen fasea gainditu du, eta "kalitatearen aipamena" eskuratu du. Erakundeko arduradunak baikor agertu dira lehen

fasea gainditu dutelako.

Egun, Unibertsitatearen egitekoa ez da soilik zentratzen irakaskuntzako jardueretan, izan ere, bere gain hartu ditu ikerketarekin eta teknologiarekin lotutako rol berriak. Hortaz, unibertsitatea herrialde baten ekoizpen garapeneren protagonista bihurtu da.

'Deusto Campus Mundus 2015'

DUK aurkeztutako planaren xedea, 'Deusto Campus Mundus 2015' deiturikoa, Deustu erreferentzia zentro bihurtzea da, "gaitasun eta balioen irakaskuntzan eta ikaskuntzan, iker-tzaile gazteen bikaintasunerako prestakuntzan eta giza garapenerako berrikuntza eta justizia sustatzen duten gai-arlo jakin batzuetan", proiektuaren arduradunaren arabera.



## HILEKO GRAFIKOAK

### Etxebizitzen salmenta %9,9 jaitsi da Estatuan



2009ko abuztuaren, etxebizitzen salmentak behera egin du Espainian, izan ere, aurreko urteko epe beraren aldean, %9,9 egin du behera. Oro har, abuztuaren gauzatutako salmenten %91,1 libreak izan dira; aitzitik, gainontzeko %8,9 etxebizitza babestuak izan dira.

Bestalde, aurtengo abuztuaren saldutako etxebizitzen %45 erabilitako etxebizitzak ziren; horietariko %55, aldiz, berriak ziren (estrenatu gabeak). Duela bi hilabete (abuztuaren), Estatuan gauzatutako etxebizitzen salmenten %56,9 lau autonomia erkidegotan gertatu zen, Andaluzian, Valentziako erkidegoan, Katalunian eta Madrilgo erkidegoan, hain zuzen ere.

Iturria: INE

### Azken urtean %4,8 hazi da langabezia-tasa

EAEko lan-merkatuaren 2009ko hirugarren hiruhilekoko datuen arabera, 947.800 okupatu izan ziren hiruhileko horretan; beraz, hiru hilabete lehenago baino 2.000 gutxiago, %-0,2, Eustaten datuen arabera. Bestalde, langabezia-tasa %8,3an da; 2009ko bigarren hiruhilekoaren aldean, puntu erdi gehiago.

Langileen tasa, hau da, 16tik 64 urtera bitarteko biztanle-kopuruaren gainean langileek duten ehunekoa, %64,9koa izan da, hots, hiru hilabete lehenago baino puntu hamarren bat gutxiago.

Lurralde historikoei dagokienez, okupazio-tasarik handiena Gipuzkoakoa da, %67,4koa, hain zuzen ere; Araban, berriz, %65,7koa da; eta, azkenik, Bizkaia du tasarik txikiena, %63,2koa. Aurreko hiruhilekoaren aldean ez dago aldaketarik.

Iturria: EUSTAT



## ELKARRIZKETA

### UNAI SORDO

CCOO Euskadiko idazkari orokorra

# "Zalantzarik gabe, ziurgabetasunezko egoera bizi dugu"

*Unai Sordo (Bilbo, 1972) gizarte-graduatu da EHUtik, eta egurraren industriaren sektorean lan egin zuen, sindikatuen munduan sartu aurretik. 2000. urtean, CCOO Euskadiko Gazteriaren Idazkaritzan jardun zuen, eta 2004an Bizkaiko lurraldeko arduraduna izatera pasa zen. Aurten, Sordok Josu Onaindi ordezkatu du CCOO Euskadiko idazkari orokor gisa.*

Zaila da Euskadin sindikalismoa egitea?

Bai, oso zaila da lan arloan jendea antolatzea, oso arlo ahula baita, batez ere ETEei dagokienez eta dagoen prekaritatea kontuan izanik. Halere, gure aurrerapauso handienak eremu horietan ematen dira; hori dela eta, enpresetan sindikalismoa sustatzen jarraitu behar dugu.

Zein da egungo egoera Euskadiko lan-sistemaren inguruan?

Oro har, Euskadin dagoen lan-sistema ona dela esango nuke. Euskadiko langileen %80 euskal eremuaren hitzarmen taldeetan sartuta daude. Hori bai, oraindik askoz gehiago hobetu behar dugu, gizarte-babe-sean, gure erreferentzia Europako aurreratuena izan behar baita.

Zure ustez, noiz hasiko da langabeen kopurua murrizten?

Zaila da jakitea. Barneko eta, batez ere, kanpoko aldagaien menpe gaude arlo honetan, esaterako Alemania eta Frantzia bezalako herrialdeen bilakaeraren arabera edota Espainiako egoera ekonomikoren arabera. Dena dela, hausnarketa bat egin behar dugu krisi hau piztu duen eredu ekonomikoaren inguruan, aldatzeko edo ezabatuzko.



Unai Sordo CCOO Euskadiko idazkari orokorra

Eusko Jaurlaritzan izan den aldaketa politikoaren ostean, Gobernuarekiko harremana aldatu egin da?

Indartu eta hedatu beharreko eztabaida soziala ireki da, eta hori berri ezin hobea da, sindikalismoak politika publikoetan eragina izatera ailegatzeko. Eskaera hau ere aurreko gobernuari egin genion, baina bakarrik sail batzuetan gauzatu zen; enpleguari lotuta zeuden guztiei bizkarra eman zieten.

Zein motatako harremana dauka CCOO Euskadik sindikatu abertzaleekin?

Okerreko kultura dela esango nuke; nire ustez ez da zuzena helburu estrategikoak konpartitu nahi ez izatea, horrek harreman aratuak saihesten baititu.

Zer deritzozu euskal sindikatu askoren bat-egitearen inguruan (ELA, LAB, HIRU, SKA, STEE-EILAS eta EHNE), Patxi Lópezen politika ekonomikoaren aurka?

**"Eztabaida serio eta sakona ireki behar da"**

Nire ustez, hau guztia ELA-ren asmoa bultzatzeko egiten da, eta neurri txikiago batean, LABena. Sindikatuen parte-hartzearen alde agertzen diren aurrerapen guztiei (lan eremuan gehienbat) boikot egin nahi diete. Azken finean, estrategia hegemonista da.

Ba al dago CCOO Euskadi prest bat-egite horretan parte hartzeko?

Maiatzaren 21eko greban argi geratu zen bezala, bat-egite hori CCOOren aurka egiten da. Lehenengo eta behin, krisiaren kontra egiten zela iragarri zuten, baina, azkenean, eztabaida sozialaren eta aukera sindikal zehatz batzuen aurka izan zen.

Bat-egite sindikala gatazka sozialean esku hartzeko gauzatu beharko litzateke, eta ez sindikatuen artean borrokatzeko.

Zein eragin dauka langileengan ERE ospetsuen gorakadak?

Zalantzarik gabe, ziurgabetasun egoera da hau. Oso garrantzitsua da enplegu industrialaren mantentzea herrialde osoan, eta

EREak gauzatzeko benetako arrazoiak kontrolatu behar dira (soilik akordio sindikalarekin). Dena den, ez dugu ahaztu behar langabezia-tasaren hazkundera gehienbat banakako kaleratzeak datorela, ez EREetatik.

Uste duzu enpresa asko krisiaren egoera aprobetxatzen dutela beharrezkoak ez diren murrizketak egiteko? Zer egin daiteke egoera horiek saihesteko?

Uste dut enpresak askotan krisiaren psikosiaz aprobetxatzen direla, lan-baldintzak malgutuz eta, batzuetan, hitzarmenean hitzartutakoa eraldatuz. Beste kasu batzuetan ere, enpresek ERE famatuak gauzatzen dituzte eta gainontzeko beharginek aparteko orduak egiten dituzte. Horregatik, ezinbestekoa da lan-ikuskapena eta akzio sindikala gauzatzea.

Zer deritzozu Gobernu zentralak zergak igotzeari?

Bidegabekoa eta gehiegizkoa da. Eztabaida serio eta sakona irekitzea beharrezkoa da, Espainia eta Euskadiko zergen egituraren inguruko. Zergak mailakakoak izan behar dira, hau da, gehiago duenak gehiago ordaintzea, eta nahikoak izan beharko liriateke esku-hartze publikoko mailarako (prestazio sozialak, inbertsioa...). Iruzurri bidea galarazi behar dugu.

**Gure gizarte erantzukizunak ingurumena zaintzera behartzen gaitu...**



### **...maila handiko teknologiarekin**

ITP Taldean ahalegin handia egiten dugu ikerketa alorrean hegazkin-motor eraginkorragoak eta atmosferara CO<sup>2</sup> gutxiago isuriko dutenak diseinatu eta egiteko, teknologia horren garapenean berrikuntzak eginez, eta etengabe hobetzeko talde-lana bultzatuz. Eta horregatik, Ingurumen alorreko Baimen Integratua jaso duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara.

Ingurumena errespetatzeari dagokionez aitzindari izateko jarri genuen helburua betetzen ari gara.



[www.itp.es](http://www.itp.es)



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.

## ERREPORTAJEA

# Lan-kapitalak gaur egun duen garrantzia

*Azkenaldi honetan indarra hartu duen kontzeptuetako bat lan-kapitala deiturikoa izan da. Askok ez dakite zer esan nahi duen, baina beste batzuek enpresa bat aurrera eramateko ezinbestekoa den elementu edo ezaugarria dela ziurtatzen dute. Berrikuntza eta informazioa alde batera utzi gabe, langileen hezkuntza eta prestakuntza beharrezkoak dira enpresa bat sendo mantentzeko.*

Ekonomiaren hazkundera sustatzeko, lan-kapitala ezinbestekoa den ezaugarria da, hau da, langileen parte-hartzea eta jakintza bultzatzen duen zera da lan-kapitala. Enpresari eta aditu askok elementu honetan jartzen dute konfiantza osoa, horrela, eu-

Gasteiz eta Irun, Estatuko lan-kapitalaren tasaren ginetik



Langileen hezkuntza ezinbestekoa da enpresa batek aurrera egiteko

ren negozio edo enpresak aurrera egin baitezake arazorik gabe.

Enpresa baten ekonomia hazteko, ekoizpen faktorea oso esanguratsua da, baina ez soilik kantitateari dagokionez, baizik eta proiektu edo produktuan sartuta dauden langile eta pertsonen formakuntza eta kalitatea ere garrantzitsuak dira negozio bat sustatzeko orduan.

Trebetasuna, esperientzia eta prestakuntza hazten diren heinean, normalean esaten da lan-kapitala ere handitzen dela eta enpresaren bilakaera hobetu daitekeela. Sormena ere garrantzizko ezaugarria da; askotan, enpresetako zuzendari askok euren langileen esku (edo buruan, kasu honetan) uzten dute ideia berrien sorkuntza edo jada existitzen diren ideien moldaketa.

Zorionez, XXI. mendean oso buruzagi edo enpresari

gutxi gutxiesten dute pertsonen balioa, pertsonak behar duten bezala baloratuz. Horregatik, egungo

enpresa ez da lehengoa bezalakoa, baina ez da soilik arlo teknologikoan edo eredu berritzaileetan alda-

tu, baizik eta langileen protagonismo eta garrantzian.

Laburbilduz, egun egiten den kudeaketa ez dago

oinarrituta teknologian eta informazioan; gaur egungo behar bezalako kudeaketaren giltza bertan lan egiten duen jendearen parte-hartzean datza. Beharrezkoa dena etengabeko berrikuntza eta abenturetan murgiltzeko grina izatea da; beste hitz batzuekin esanda, errealtatea eta enpresa ulertu, etorkizunari aurre egin edo gure helburu edo misioa zein den argi izan.

Getxoko lan-kapitala, Euskadiko hoberena

Euskadin eta Estatuko iparraldeko lurralde gehienetan egindako ikerketaren arabera, Getxo da lan-kapital sendoena duen herria, gutxienez Euskal Herriko mugen barnean. Azterketa hau Bancaja banketxeak eta IVIEK (Iker-



Ekonomialari estatubatuar honek Ekonomia Nobel saria irabazi zuen 1992. urtean, lan-kapitala kontzeptuari esker, bera izan baitzen esangura zehatza eraiki eta sortu zuen pertsona. Izan ere, bere lanak kritika ugari izan zituen, munduko ekonomialari asko-

## Gary Becker eta bere kontzeptua

rentzat kontzeptu horrek ez zeukalako zentzurik.

Dena dela, gaur egun ekonomialariek eta gizarte osoak, orokorrean, bere ekimena bultzatzen dute. Becker ezagutzaren gizar-teak ikertzen hasi zen eta altxorrik preziatuena lan-kapitala zela aitortuz bukatu zuen, hau da, pertsonen ezagutza eta trebetasunak goraiatu zituen bere azterketan.

Ezagutza enpresa, laborategi eta unibertsitateen bidez sortzen da; familia, hezkuntza-zentro eta lanpostuen bitartez hedatzen da, eta ondasun

edo zerbitzuak ekoizteko erabiltzen da. Iraganean zuzenena garapen ekonomikoari lehentasuna ematea zen, eta ondoren gairontzekoa zetorren. Egundak, berriz, guztiz kontrakoa gertatzen da eta lotura berezia sortu da hezkuntzaren eta garapen ekonomikoaren artean.

### Gizartearen zahartzea

"Lan-kapitalaren garrantzia langileen esperientzian isla daiteke", adierazi du Gary Beckerrek.

Bestalde, estatubatuar-rrak ukitzen duen beste

gaia biztanleriaren kopuruaren bilakaera da, "gero eta jende gutxiago dago gure artean, heriotzak hazten diren heinean, jaioberriak murrizten dira, hori belaunaldiko arazo batean bihurtuko da epe labur edo ertainean; gizarte zahartzen ari baita", gaineratzen du Nobelak.

Ekonomialariak ez du aste gurasoen pentsaera aldaketa honek soilik arrazoi sozial edo psikologikoak izango dituenik, "egoera ekonomikoak eragin handia du seme-alabak izate-rako orduan", epaitu du Beckerrek.

## ERREPORTAJEA



Getxo da lan-kapital sendoena duen Euskadiko hiria

kuntza Ekonomikoen inguruko Valentziako Institutua) egin zuten joan den urtean, eta badirudi emaitzak ez direla asko aldatu krisialdiaren hedapenaren ostean. Datuak, batez ere, ikasketa unibertsarioak dituzten herritarren por-

programa eta ekimen eraman dituzte praktikara, eta euskal erakundeak zuzentzen dituztenei zuzenduta daude, leihakortasuna hobetzeko, bai eta erdi mailako karguak betetzen dituztenei ere, baina, betiere, lider izateko ahalmena badute. Azken finean, programa hauen helburu nagusia lan-kapitalaren trebetasunak hobetzea da, erakunde desberdinen sormena eta berrikuntza sustatuz.

Enpresen helburuak eta beharrak

Teknologia berrienak merkatuan aurrera egiteko garrantzitsuak direla argi dago, baina gero eta gehiago beste ezaugarri batzuk bilatzen dira produktibitate positiboa eta arrakasta lortzeko. Hala ere, ekintzaileen malgutatsuna eta lana ondo burutzeko duten ahalmena ezinbestekoak dira; era berean, erakunde edo enpresa berean lan egiten duten behargin eta zuzendarien egokitzapen ahalmena ere beharrezkoa da.

Horrez gain, gaur egun teknologia eta informazioa edozein enpresaren esku egon daiteke; beraz, enpresa batetik bestera ikus dezakegun desberdintasunik handiena eta lehiakorrena erakundearen lan egiten duten pertsonen ahalmena izan daiteke. Alabaina, ezaugarri berezi hori lortzea ez da batere erraza, eta biderik errazena etengabeko ikasketa izan daiteke.

Aurrera eramandako ekimerak

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak eta SPRIK zenbait

Mónica Moso

Innobasqueko Gizarte Berrikuntza Saila - Programa zuzendaria

## “Ekialdeko herrialdeek aurrerapen nabaria izan dute”

Zein egoeratan dago Euskadi lan-kapitalari dagokionez?

Oro har, Euskadiren egoera, lan-kapitalari dagokionez, ona dela esan dezakegu. Esaterako, Eustaten arabera, haur eta gazteen eskolarizazio tasak Europako altuenetarioak dira lehen eta bigarren hezkuntzan (%97); prestakuntza profesionalaren kasuan (%41) eta unibertsitarioan (%37) ere emaitza positiboak lortu ditugu. Beste faktore batzuk kontuan izatea komenigarria izan daiteke, adibidez, Internet etxean duten familiaren kopurua gero eta handiagoa dela (%58). Halere, horrek ez du esan nahi erroka guztiak jada beteta daudenik.

Zure ustez, krisiak eta lan-kapitalaren murrizketak zerikusia dute?

Nire ustez, egungo egoera finantzarioaren oinarriak nazioarteko gorabehera ekonomiko eta finantzarioak izan dira. Ez dut uste lotura duenik pertsonen ahalmenekin, baina gure esku dagoena da egoera berri honetara ohitzea eta egokitzea, hau da, gai izan behar gara egungo baldintza ekonomiko eta sozialetara moldatzeko.

Ekialdeko herrialdeak gero eta aurreratuago daude arlo honetan; zein esango zenuke dela horren arrazoia?

Egia da Ekialdeko herrialdeek aurrerapen nabari eta garrantzitsua izan dutela

azkenaldi honetan; Europar Batasunera gerturatzea (EB-27), nazioartean inbertsioak egiten hastea edota prestakuntzan ibilbide esanguratsua lortzea izan dira herrialde horien giltzak. Modu honetan, Eslovenia eta Txekiar Errepublikak Ekialdeko herrialdeen arteko aurreratuak dira.

Zeintzuk dira gehien sendotu behar ditugun sektore edo eremuak gure lurraldeko lan-kapitala igotzeko?

Irakaskuntza bultzatzea bizitzan zehar ezagutza eta ahalmen ugari dituzten pertsonentzat giltza izan daitekeela uste dut. Gainera, garrantzizkoa da balio berriak hedatzea, espiritu sortzailea eta ekintzailea, besteak beste.

Estatuko unibertsitateen gehiengoan garrantzi handiagoa ematen zaio teoriari praktikari baino; errakuntza dela uste duzu? Zein izango litzateke irtenbidea?

Bidezkoena izango litzateke oreka aurkitzea teoriaren eta praktikaren artean. Dena dela, unibertsitate arloan pisu handia du izaera teorikoak, baina neurri berriak ezartzen ari dira egitura horretatik aldendu ahal izateko, Boloniako prozesuarekin edo ikerkuntzaren bide berrieekin.

Hala eta guztiz ere, ildo horretan lan egiten jarraitu beharko dugu, gure egitura unibertsitarioa errentagarri eta hobereketarikoak bihurtzeko.



## ELKARRIZKETA

### JON LASA

*Sematec-eko gerentea*

*SEMATEC zerbitzu-enpresa APAVEK, industria-segurtasunari dagokionez Frantzia liderra denak, eta TECNALIA korporazioko INASMET zentro teknologikoak sortua da. Aholkularitza, ikuskaritza, laguntza teknikoa eta prestakuntza zerbitzuak eskaintzen dituzte, euren bezeroen helburuak lortze aldera, ingurumenaren, kalitatearen eta industria-segurtasunaren arloetan, industria eta zerbitzuen sektorearentzat. Enpresaren egoera eta nondik norakoak ezagutzeko, solasaldi bat izan dugu Jon Lasa Semateceko gerentearekin.*



Zein izan zen Sematec sortzeko arrazoia edo helburua?

Enpresa desberdinei laguntza eskaintzea ingurumenaren kudeaketan, kalitatean eta industria-segurtasun arloetan. Enpresa horiek zerbitzu-sektorean ere izan dezakete gure laguntza.

Ingurumenak garrantzi handia du azken bolada honetan. Zer garrantzi ematen diozue arlo honi zuen enpresan?

Hamabi urte daramatzagu ingurumen arloan enpresak laguntzen. Gure aktibitatearen %50 inguruko zerbitzuak Hego Euskal Herriko industriari bideratuta daude eta ingurumenarekin zerikusi zuzena dute, industrian kutsadura murriztea gure helburua baita. Eskaintzen ditugun zerbitzuen artean bi dira garrantzitsuenak: legezko baldintzak betetzearen inguruko aholkularitza eta ingurumena kudeatzeko sistema ezartzeko aholkularitza.

Teknologia edo berrikuntza azken urteetako beste faktore garrantzitsu bat da; zer garrantzi du arlo honek Sematecen?

Berrikuntza prozesua mar txan dugu, bezeroen behar berriak betetzeko eta garrantziko. Kontuan izan behar

dugu enpresetan hazten ari dela kontsumoaren ardura. Arrazoiak, batik bat, honakoak dira: energiaren garestitzea, alde batetik, eta kutsaduraren inguruan azkenaldi honetan sortu den ardura, besteetik.

Orokorrean, zure iritziz, une honetan merkatuan dauden enpresek apustu handia egiten dute berrikuntzaren alde?

Egia esanda, enpresek gero eta gehiago egiten dute berrikuntzaren alde, baina, une honetan, ez da nahikoa, eta, nire ustez, oraindik lan gehiago egin beharko dugu krisi honetatik ateratzeko.

Bestalde, amiantoari dagokionez, eraikinetan egiten dituzuen ikuskapenetan mineral honi ere egiten diozue aurre?

Eraikinetan amiantoaren ikuskatzeak egitea gure helburuen artean dagoen beste faktore bat da. Material arriskutsua da eta guztiz debekatuta dago berarekin komertzializazioa, baina, legez, Espainia mailan bidezkoa da erabiltzea, instalatuta dagoen materialean. Horregatik, guk ikuskapenak egiten ditugu, jakiteko ea amianto dagoen ala ez.

Zeintzuk dira amiantoaren arriskuak?

## “Zerbitzuen sektorean krisiaren ondorioak nabaritzen hasi gara”

Amianto zuntz mineral bat da, eta, bere tamainagatik, oso zuntz txikiak direla esan genezake; hori dela eta, arnasa hartzerakoan, biriketara sartu eta bertan gera daitezke, den-

Gure lana, batez ere, erai bat da, eta, bere tamainagatik, oso zuntz txikiak direla esan genezake; hori dela eta, arnasa hartzerakoan, biriketara sartu eta bertan gera daitezke, den-

tatu behar dituzten arauak ingurumenaren aldetik.

Momentuz ez dituzue krisiaren ondorioak pairatu; hala ere, uste duzue zuen sektore edo enpresa epe labur edo ertainean kaltetua izan daitekeela?

“Enpresetan hazten ari da kontsumoaren ardura”

Zuen enpresatik prestakuntza ere eskaintzen duzue, baina zer motatako prestakuntza eta nori zuzenduta dago?

Eskaintzen dugun prestakuntza batez ere enpresatiko teknikarientzat izaten da. Era berean, ingurumeneko, segurtasun-prebentzioko edota mantenimenduko teknikarientzat ere bideratuta dago, hau da, prestakuntza teknikoa da.

Bestalde, amiantoaren inguruan ere prestakuntza eskaintzen dugu, bai eta ingurumenaren arloan ere, beste eremu batzuen artean. Azken horretan, batez ere, enpresei erakusten zaie zeintzuk diren errespe-

Gure sektorean, zerbitzuen sektorean, hasi gara nabaritzen krisiaren ondorioak, enpresak murrizten ari baitira euren gastu guztiak. Esternalizatzen dituzten gastu guztiak murriztu egiten dituzte.

Oro har, zeintzuk dira Sematecen aurreikuspenak urte honetarako?

Energia eraginkortasunaren arloan enpresei laguntza da gure helburu nagusia. Horrekin batera, energiaren kontsumoa eta gastua murriztuko dute, eta, era berean, kutsadura ere murriztuko da. Horregatik, enpresa honetan kontsumo iraunkorren bidean gaude.

borarekin hainbat gaixotasun larri sortuz, horien artean minbizia.

Material honen ondoan dagoen jendeak arrisku handiagoa dauka. Horregatik, ezinbestekoa da jakitea zein materialetan auki dezakegun amianto.

Amiantoari aurre egiteko orduan, zein metodo erabiltzen dituzue?

## ERREPORTAJEA



# Ekonomiaren egoera, Carlos Aguirreren ikuspuntutik

Carlos Aguirrek, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburuak, bere plan eta estrategiak ezagutzera eman zituen Ercilla Hotelean ospatutako mintzaldian, Nueva Economiaren esku. Besteak beste, Barne Produktu Gordina, Euskadiko kutxen bat-egitea eta Jaurlaritzako aurrekontua izan ziren hizpide hartutako gaietako batzuk. Azken finean, Aguirrek egungo egoera ekonomikoaren ikerketa sakona egin zuen.

Carlos Aguirre bilbotarra Eusko Jaurlaritzan lan eginda zegoen egungo legegaldien aurretik. 1987an Planifikazio zuzendari jardun zuen, eta hortik aurrera hainbat erakundetako kide izatera pasazen: SPRI, Eusko Trenbideak, EEE edo Bilbao Metropoli 30, beste batzuen artean.

Dena den, gaur egun Aguirre Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburua da, eta, ziurrenik, bere kargua ez da momentu egoki eta oparoenean ailegatu. Egoera ekonomikoa ez da batere positiboa, eta, horren ondorioz, sektore eta eremu ekonomiko guztiak kaltetuak izan dira, eta murrizketa edo neurri ezatseginak hartu behar izan dira.

## Krisiaren alde positiboak

Oro har, sailburuak egungo krisialdia 1975ean bizi izandakoarekin alderatzen du, eta "azken hamarkadetan agertutako krisia" dela aitortu zuen. Izan ere, ekonomialaria baikor dago, eta egoera honetatik "indartuta" aterako garela esan zuen. "Krisia atzean utzi bezain laster, gure egoera asko

aldatu da eta sendotuta aterako gara, inflaziorik gabe, %10etik beherako langabeziatasarekin eta giza talde prestatuarekin", adierazi zuen Aguirrek Ercilla Hotelean emandako hitzaldian. Ildo berari jarraituz, sailburuak komentatu zuen gaur egungo belaunaldiak inoiz baino prestatuntza hobea duela.

80.000  
enplegu  
inguru  
galduko dira  
2010ean

Carlos Aguirrek argi utzi nahi izan zuen krisi hau ez dela hain desberdina aurrekoetatik, "hainbat krisiren nahasketa da; horregatik, kudeatzeko orduan zailagoa egiten da".

"Gure moneta indartsua da; hori dela eta, leihakorak izateko modu bakarra berrikuntzan inbertitzea izan daiteke. Dena den, berrikuntzak, normalean, ez ditu emaitza positiboak lortzen epe laburrean,

baina bai epe luzean", argitu zuen sailburuak. Inbertsioen inguruan hitz egiterakoan, Aguirrek datozen urteetan prestatuntzan, sorkuntzan eta talentuaren kaptazioan zentratu behar zirela aitortu zuen.

Sailburuak oso murrizketa nabarmenak egongo direla iragarri zuen, Hezkuntza eta Osasun sailletan izan ezik; osasun-laguntza sistema hobetzea da bere helburua, "gure biztanleria zahartzen ari baita", gehitu zuen.

## Liderraren betebeharrak

Aguirreren aburuz, momentu honetan beharrezkoa den lidergoia estrategian oinarritzen dena da, bereziki egungo egoera ekonomiko eta sozialera nahasketa da; horregatik, kudeatzeko orduan zailagoa egiten da. "Proiektu edo egitasmo ugari aurkezten dira hilabete hauetan, baina lider on bat ezetz esateko gai izan behar da; ez dago dirurik ezta denborarik ere proiektu guztiak gauzatzeko", esan zuen sailburuak.

## Euskadiko kutxen bat-egitea

Aurreko hilabeteetan zehar hainbat buelta eman zaizkio gai berari; BBK, Vital eta Kutxaren arteko bat-egitea badirudi oraingoz ez dela gauzatuko. Aguirrek aitortu zuen noizbait gauzatu dela, baina, agian, "une hau ez da momenturik aproposena, adibidez BBK-k bere lidergoia galtzeko arriskua ikusi du eta bere autonomiak behera egin dezake bat-egite baten ondorioz", gaineratu zuen sailburuak. Kutxa bakoitzak bere betekizunak izango ditu, eta "batu ostean kutxaren batek bere egoera okertzeko arriskua ikusten badu, ez du ekintza aurrera eramango", komentatu zuen bilbotarrak.

Euskadiko kutxen arteko bat-egitea, ziurrenik, krisialdia gainditu ostean gauzatu dela pentsatzen du Carlos Aguirre Ekonomia eta Ogasun sailburuak. Dirudenez, Aguirreren esanetan, gaur egun, kutxen helburua egoera ekonomikoari eustea eta indibidualki krisia gainditzea da; horregatik, momentuz ez du bat-egiterik gauzatu nahi.



## VI JORNADAS SOBRE TURISMO EN GIPUZKOA

3, 4 y 5 de Noviembre de 2009 ♦ Horario: de 16:30 a 19:30 horas

JORNADAS GRATUITAS ♦ Palacio Miramar, Paseo Miracóncha 48 • Donostia - San Sebastián

Inscripciones: Por teléfono: 944 21 30 31 ♦ Por e-mail: jardunaldiak@leizaola.org

PROGRAMA

### Día 3

- Claves y decálogo de medidas para afrontar con éxito la crisis económica en el sector turístico.
- Planes para impulsar el turismo vasco en época de crisis.

### Día 4

- Turismo y gastronomía: Los Gourmet-trotter. Puesto en valor de la oferta gastronómica especializada. La experiencia de la innovación y nuevas tendencias en restauración.

### Día 5

- Traslado por cuenta de la organización y visita práctica al centro D'Elikatuz (Ordizia) degustación de productos típicos del Goierri. Viaje de vuelta por cuenta de la organización de Ordizia a San Sebastián.

Para consultar el programa completo puede visitar: [www.leizaola.org/turismo](http://www.leizaola.org/turismo)



La asistencia a estas Jornadas permite obtener un (1) crédito convalidable a los alumnos de la UPV/EHU

## TEKNOLOGIA

### Disko Gogor Eramangarria

Ordenagailuetan gero eta datu edo fitxero gehiago sartzen ditugu; horregatik, askotan ez dugu lekurik guztia gordetzeko, eta ezabatu egin behar dugu edo ehunka CD eta DVD erosi. Arazo horrekin bukatzeko, kanpoko disko gogorak sortu dira; gero eta memoria gehiago dute eta oso erabilgarriak dira (gehienetan txikiak eta eramangarriak dira, gainera). Pelikulak edo argazkiak telebistan ikusteko ere balio dute, baina arruntak direnak ere aurkitu ditzakegu, soilik datuak gordetzeko eta ordenagailuaren ondoan uzteko balio dutenak. Dituen ezaugarrien arabera, prezioa aldatu egin daiteke:

Informazio gehiago eskuratzeko:  
<http://www.pccity.es/>



IOMEGA SELECT

1,5 TB  
 3,5" tamaina  
 Plug & Play

PREZIOA: 109 €



WESTERN DIGITAL

750 GB  
 SOFTWARE WD  
 0,20 KG

PREZIOA: 149 €



IOMEGA SCREEN PLAY BASIC

1,5 TB  
 HDMI KONEXIOA  
 BATERAGARRIA  
 FORMATU ANITZEKIN

PREZIOA: 139 €

## ARDOAK



### Lleidako ardoak

Katalunian oso ezaguna da cava deituriko edaria, baina ardoen gaietan ere oso izen ona dute, nahiz eta hain ospetsuak ez izan eremu honetan. Oraingoan, Lleidako ardoetan zentratuko gara; mota askotakoak aurki ditzakegu: leunak, gogorak, apardunak... Horregatik, ia guztien ezaugarriak ezagutu ahal izateko, Lleidako hiru ardo desberdinen hautaketa egin dugu.

Hona hemen Lleidako lurraldeetan dastatu ditzakezun ardo mota batzuk:



*Llabustes Merlot*

ELABORAZIO TOKIA:  
 Vilamitjana

PRIMERAN DOA:  
 arrainarekin

PREZIOA: 7,50 €



*L'olivera Missenyora*

ELABORAZIO TOKIA:  
 Vallbona de les monges

PRIMERAN DOA:  
 haragiekin

PREZIOA: 9 €



*Raimat Viña 27 Chardonnay*

ELABORAZIO TOKIA:  
 Costers del Segre

PRIMERAN DOA: arrain eta haragi txuriekin

PREZIOA: 8 €

## JATETXEA



Bilboko alde zaharraren bihotzean dago Ariatza Jatetxea, Somera kalean, hain zuzen ere. Hiru solairu ditu eta landetxe itxura du, dekorazio landarrarekin.

Zehazki, Erriberako Merkatuaren aurrean dago, eta bere plater guztiek euskal ukitua dute; Rafael Carretón da sukaldeko chef-a, eta janari guztiak arreta handiz prestatzen ditu.

Espezialitateen artean, hainbat plater desberdin aurkitu ditzakegu, baina menu bereziak ere prestatzen dira egunero: enpresetarako, egunekoa, Ariatza menu anitzak edo babarrun-menu berezia, beste batzuen artean.

### ARIATZA Jatetxea

#### Karta-menua

##### HASIERAKOAK

- Barraskiloak saltsan
- Bakailao-kroketak
- Barrengorriak

##### LEHEN PLATERAK

- Zainzuria bi saltsatan
- Gula eta baratxuri-oliudun entsalada
- Odolkia piperradan

##### ARRAIN ETA HARAGIAK

- Legatza Koxkera erara
- Txuletoia hornigaiarekin
- Bakailaoa pil-pil erara

##### AZKENBURUKOAK

- Euskal pastela
- Madariak ardo gorriarekin
- Txokolatzeko moussea

*Ura, etxeko ardoa eta ogia prezioan sartzen dira*

##### GUZTIRA:

30 € (BEZ barne)

Somera 7, 48005 Bilbao  
 Tel.: 944 155 019  
 ariatza@ariatza.com  
<http://www.ariatza.com>

# AISIALDIA

## Estresari aurre egiteko hileko proposamena

### TXOKOLATERAPIA

Kirola egitea, masajeak jasotzea edota egun batzuetan zehar kanpoan egotea estresari aurre egiteko era desberdinak izan daitezke, baina gaur proposatuko duguna aipatutako ekintzak baino originalagoa eta, askorentzat, atseginagoa izango da.

Txokolatea ia pertsona guztiontzat gozagoa den janaria da, baina ez da bakarrik positiboa gure ahosabaiarentzat, izan ere, joera positiboa du gure animorako eta azalerako. Hau da, txokolatea masajeak egiteko gero eta gehiago erabiltzen den



Txokolaterapia

elementua da. Kakaoak propietate hidratatzaile, elikagarri, antioxidatzaile eta leungarriak ditu; hori dela eta, ezin hobea da gizabanakoen osasun eta ongizaterako.

Lasaigarria da eta, adituek esaten dutenaren arabera, umore ona sustatzen duten bitaminak edo propietateak ditu. Hori dela eta, gero eta jende gehiagok mota honetako masajeak ematen dituzten zentro edo gimnasioak bilatzen ditu. Alabaina, txokolatea ez da edozein modutan aplikatu behar; profesionalak honela egiten dute: zorro bero batzuen bidez aplikatzen dute, masaje batekin lagunduta, baina kakaoa ez da guztiz bero egoten. Dena den, hoberena zentro espezializatu batera jotzea izango litzateke, ziur erosoagoa izango dela.



Kakaoa ez da guztiz bero egon behar

#### Efektuak:

- Zelula hilak desagerrarazten ditu
- Gaztetu egiten du
- Hidratatu egiten du
- Azaleko mantxak kentzen ditu
- Muskuluak erlaxatzen ditu
- Nerbio-sistema zentrala aktibatzen du
- Estresari aurre egiten dio

# LAN ESKAINTZAK

**KOMERTZIAL AGENTEA**  
Ostalaritza eta elikadura sektoreko enpresa batek behar du: Komertziala bezero berrien bilaketa sustatzeko eta sarea haunditzeko. Ezinbesteko baldintzak: Esperientzia bezero berriak egiten, goi-mailako ezagupenak euskaraz eta kotxea. LAN BALDINTZAK: Urte beteko kontratua. Lan ordutegia librea; Soldata gordina urtean eurotan: 18. 000-24. 000. Berehala hasteko.

#### EXTRAESKOLARRETARAKO BEGIRALEA

Psikomotrizitatea emateko begiralea behar da. Bi ordu eta erdi astean, urritik hasita ekainerarte. Arratsaldez izango da. Baldintzak: euskara eta gidabaimena. Inef edo psikomotrizitate ikasketak baloratuko dira.

#### GIS TEKNIKARIA

GIS sistemen diseinu, inplementazio eta mantenu lanak egiteko teknikaria behar da. Ezinbesteko baldintzak: gis arloan berariazko formazioa, oinarriko gis software-aren ezagumendua, euskaraz lan egiteko gaitasuna, gida baimena izatea eta ofimatikako oinarriko ezagumendua.

#### IRAKASLEA

Automoziozko teknikaria behar da Bermeoko lanbide hastapena eta sustapeneko zentroan klaseak emateko. Beharrezkoa da automoziozko goi mailako titulua edukitzea eta euskera jakitea. Busturialdeko eskualdean bizitzea eta hezkuntzan esperientzia edukitzea baloratuko da. Lanaldia: zortzi ordukoa. Kontratuaren iraupena: ordezkapena.

#### PROFESOR/A DE IDIOMAS (INGLES Y EUSKERA)

Academia ubicada en Sestao precisa estudiante de los últimos cursos de carrera o persona preparada para la impartición de clases de ingles y euskera a nivel de E. S. O. , L. O. G. S. E. y adultos. Se requiere dominio de ambos idiomas, experiencia en el puesto y residencia en margen izquierda o Erandio. Se ofrece contrato por obra. Jornada parcial. Horario de tarde: 4 horas semanales.

#### EDUCADOR/ A (Donostia-San Sebastián)

Educador/ a para impartir charlas a alumnos/ as de 3º y 4º ESO sobre cambios en la adolescencia. Charlas a impartir en Donostia y en la provincia. IMPRESCINDIBLE: Psicología, Psicopedagogía, Pedagogía, Educación Social y Trabajo Social, euskera alto, vehículo propio (se paga el kilometraje con origen en Donostia), conexión a Internet y disponibilidad para viajar. HORARIO: disponibilidad de mañanas y de forma puntual lunes por la tarde y sábados por la mañana. CANDIDAT@S RESIDENCIA DONOSTIALDEA.

#### CONDUCTOR DE AUTOESCUELA (PRÁCTICAS)

Persona con formación en Educación vial necesaria para poder ejercer de profesor de autoescuela. Se valorará experiencia, euskera y disponibilidad.

# EKONOMIA HIZTEGIA

### EUSKARAZ / GAZTELERAZ / INGELERAZ

AZPIEGITURA = INFRAESTRUCTURA = INFRASTRUCTURE

INDUSTRIALDE = POLÍGONO INDUSTRIAL = INDUSTRIAL PARK

BERPIZTU = RESUCITAR = TO REVIVE

BATZORDE = COMISIÓN = COMMITTEE

ZORRO = CARTERA = PORTFOLIO

EKOIZLE = PRODUCTOR = PRODUCER

ZIURGABETASUN = INCERTIDUMBRE = UNCERTAINTY

BALIOKIDE = EQUIVALENTE = EQUIVALENT

AURRERAPAUSO = AVANCE = ADVANCE

BILAKAERA = EVOLUCIÓN = EVOLUTION

MODERNOTASUN = MODERNIDAD = MODERNITY

ADITU = ESPECIALISTA = EXPERT

HITZARTU = PACTAR = TO AGREE

ALTXOR = TESORO = EXCHEQUER

SAHIESTU = IMPEDIR = TO PREVENT

MESFIDANTZA = DESCONFIANZA = DISTRUST

# SUDOKU

Buruari gogor eutsi eta ebatzi sudoku hau

							8
	4	8	2				9
1					5		6
	7	1		3		5	
3	9			6	7		
				4			3
	6	4		8			
			4				
	8				6	9	5

#### ERANTZUNAK

Zenbat denbora eman duzu sudokua eabazteko? Hona hemen erantzunak.

9	6	7	0	1	0	2	8	2
2	9	8	2	6	7	0	1	5
1	2	0	5	9	7	7	9	6
8	2	6	7	2	1	9	5	8
7	8	1	7	9	5	2	6	0
2	5	9	8	0	6	1	7	7
9	7	5	0	2	9	6	2	1
6	5	7	1	5	2	9	8	9
8	1	2	6	7	9	5	0	2

Bisita gaitzazu gure blogean! Albiste berriak egunero eta adituen iritzia

ekonomiarenkz.wordpress.com

facebook

myspace.com

twitter

Lan eskaintza gehiago Lanbide.net Euskal enplegu zerbitzuko webgunean.

HARREMANETARAKO TELEFONOA:  
94 421 30 31  
WEBGUNEA: [www.ekonomiarenkz.eu](http://www.ekonomiarenkz.eu)  
E-MAILA: [info@ekonomiarenkz.eu](mailto:info@ekonomiarenkz.eu)  
POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kutxatila,  
48080 Bilbo  
EUSKARAREN ARDURADUNA:  
Labayru Ikaştegia  
EGILEA: Leizaola Elkartea  
HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonon.



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Ekintza honek Bizkaiko Foru  
Aldundiaaren Kultura Sailaren  
laguntza jaso du.

# €konomiarenKZ

Euskal Ekonomiaren Kazeta

2009ko Urria

Lo nuestro es **EL FUTURO**



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

**Lo nuestro es** garantizar un mañana lleno de oportunidades para la juventud de Bizkaia. Un futuro que se construye desde el presente, con programas educativos y de formación, ayudas y subvenciones, propuestas culturales y de ocio. De esta manera, nuestro compromiso es sembrar para recoger, crear riqueza para repartirla en una Bizkaia que cada día es más dueña de su porvenir.

**BIZKAIA**, lo nuestro